



GETXOKO LIBURUTEGIAK

ARAUAK

Liburutegian, gogoratu...

- Isilik egon; baldin eta ozenki hitz egin, sakelako telefonoa erabili edota aurikularrak ozen eramaten badituzu, besteak molestatuko dituzu.
- **Maileguan eramango ez dituzun liburuak bere lekuan utzi; eta lekua zein den gogoratzen ez baduzu, hobe mahai baten gainean uztea.**
- Zerbait maileguan eraman nahi baldin baduzu, ez itxaron azken 10 minutuetara arte; txirrina entzunda, batu gauzak irteteko.
- **Materialak zaindu; guztionak izateaz gain, luzaro iraun behar dute.**
- Liburu edo beste materialen bat apurtu, galdu edo azpimarratzen baduzu, berria ekarri beharko duzu.
- **Liburuen mailegu epea: 21 egun; Ikus-entzunezkoena: 7 egun**
- Errespetatu umeentzat gordetako lekuak, baita egunkariak edo aldizkariak irakurtzeko eta kontsultarako direnak ere.
- **15 minutuz lekua libre uzten baduzu, liburuak utzi arren, beste batek hartu ahal izango du.**
- Egunkariak eta aldizkariak guztiontzat dira; ez erabili luzaro, ez erabili bat baino gehiago aldi berean, ez idatzi eta ez moztu. Interesatzen zaizuna fotokopiatu ahal duzu.
- **Ezin da jan, ezta edan ere. Botilatxo bat ur eduki ahal duzu, baina beti itxita.**
- Ezin da liburutegia erabili alkoholaren zein drogen eraginpean.
- **Liburutegira etorri zuzen eta garbi jantzita; bestela besteak molestatuko dituzu.**
- 15 urte baino gutxiago baldin baduzu, ekarri beti zure erabiltzaile-txartela.
- **Ume txikiak beti lagunduta eta zainduta egon behar dira.**
- Mahai gaineko ordenagailuren bat erabili nahi baduzu, hartu kontuan gehienez 30 minutuz egon daitekeela konektatuta.
- **Fotokopiagailua batez ere liburutegiko materialak kopiatzeko da eta norberak erabili behar du.**